


txoritxoari mokoka

Amagoia Iban

Otsailaren 11n da hitzordua

Mariano Raxoi (PP), Jose Luis Rodriguez Zapatero (PSOE) eta Xose Manuel Beiras (BNG) Josep Puigboren *El debate de La 2* saioan izango omen dira, beste politika-ri eta aditu batzuekin batera, *Prestige* auziari buruz hitz egiteko. Datorren otsailaren 11rako jarri dute hitzordua, gaueko hamaikak laurden gutxietarako. RTVEko zuzendari nagusi Jose Antonio Sanchezek eman zuen atzo berria, halako tertuliarik ez antolatzeagatik kritikatu dutenei behingoz erantzunez. Petroliontziaaren kroskoan le-

TORRECILLA / EFE
Xose Manuel Beiras.

hendabiziko pitzatua azaroaren 13an izan zela kontuan izaki, denbora izango ahal zuten, behintzat, galdetegia behar bezala prestatzeko! Eta otsailaren 11 arte oraindik ere bi aste luze geratzen zaizkiela ikusita, gonbidatuek ere ez dute duelua prestatzeko denbora falta izan dutela esateko aitzakiarik. Euren eskertuko dute hainbesteko aurrerapena, agian. Susmoa dugu ETBn hain maiteak dituzten *western*-etako gidioen tankera izango duela mehai-inguru aurreko, bitarteko eta ondorengo boladak. Gauza bakarra ez dugu ulertzen: nolatan ez duten jarri Carlos Davila moderatzaile lanetan, poker jokalaria aurrekoa jartzeko daukan gaitasunarekin.

LABURAEAN

Maiatzeko udal hauteskundeei buruzko solasaldia etzi ETB2n

Arnaldo Otegi, Rafael Larreina, Antton Karrera eta Emilio Olabarria ETB2ko *Politicamente incorrecto* saioan izango dira astelehenean, 23:20an, maiatzeko hauteskundeei buruz hitz egiteko.

Astelehenean amaituko da ETB2ko 'Blue planet' dokumental saioa

BBCko *Blue planet* dokumental saioan itsasoko munduaren irudi ikusgarriak jaso zituzten zortzi ataletan. Etzi, *Making waves* atal berezia eskainiko dute ETB2n, saioaren *making of* modukoa. Bertan bost urtean egin zituzten grabaketak nolakoak izan ziren azalduko dute. Otsailean edo martxoan saioa ETB1era iritsiko da.


Lau ataletan banatutako Mongoliari buruzko saioa datorren astean La2 katean

Mongolia, un mundo en movimiento dokumental saioa estreinatuko du astelehenean La2ek. Arratsaldeko 16:45ean igorriko dute lehenengo atala, Mongoliako herriaren bizimodu nomadari buruzkoa. Hurrengo egunetan beste hiru dokumentalak eskainiko dituzte.

T5ek 'Siete vidas' telesailaren itzulera bertan behera utzi du

Hainbat egunkari eta aldizkaritan *Siete vidas* telesailaren 10. denboraldiaren estreinaldia iragarri zuten igande honetarako. Baina azken orduan T5ek atzera bota du *Siete vidas*-en itzulera. Emilio Aragonek protagonistatutako *Javier ya no vive solo* telesaila (orain arte asteazkenetan ematen zutena) igandeetara pasa dute.

RADIO EUSKADI. Celtic Connections jaialdiaren berri emango dute



EGUNKARIA

Mikel Laboa Celtic Connections jaialdian izango da beste zenbait euskal musikarirekin batera.

Glasgowtik zuzenean

Joseba Martinek euskal musikariekin hitz egingo du datorren astean, Eskoziako jaian

Erredakzioa | DONOSTIA

Musika zeltarekin munduan egiten den jaialdi garrantzitsuenak Glasgowko Celtic Connections da. Hilaren 15ean hasi zen jaialdiaren hamargarren aldia eta datozen egunetan euskal musikari zenbait joango dira bertara. Hori dela-eta, Radio Euskadiko Joseba Martin esataria Eskoziara joango da.

Urtarrilaren 27tik 31ra Radio Euskadik jaialdiaren berri zehatza emango du, Martinen konexio eta kroniken bitartez. *Kultura.com*, *Boulevard*, *El Altavoz* eta *La jungla sonora* saioetan

entzun ahal izango da Celtic Connectionsen gertatzen dena.

Euskal musikariak, nazioarteko izarrekin batera

Eskoziako jaialdian, bihar Alastair Fraser biolinistak kontzertua eskainiko du Glasgow Royal Concert Hallen. *Skydance in Spain* diskoko abestiak interpretatuko ditu bertan; Joxean Goikoetxea, Alboka, Oreka Tx, Kepa Junkera eta Mikel Laboaren kolaborazioak daude disko horretan. Eta aipatutako euskal musikari eta talde horiek Glasgowko jaialdian izango dira datozen egunetan.

Asteartean, esate baterako, Kepa Junkerak kontzertua eskainiko du, Susana Seivane gaita jole galiziararekin batera. Osteguneran, urtarrilaren 30ean, Oreka Tx taldeak The Arches lokalean joko du (world music-eko musikariak ariko diren tokian).

Hamar jokaleku ezberdin daude Celtic Connections jaialdian, eta hiru astean zehar, batez beste, dozena bat kontzertu izango dira egunean. Kanada, AEB, Australia eta Europako hamaika herrialdeetatik iritsitako musikariak biltzen dira Glasgowko hirian. 1994. urteko lehenengo aldian 32.000 entzule bildu ziren bertan, iaz 94.000raino heldu zen kopurua. Eta aurten jende gehiago joango zaiela espero dute.

LA2

EPA
Saddam Hussein.

Irakeko egoerari buruzko lau dokumental emango dituzte gaur gauean

Erredakzioa | DONOSTIA

Golkoko Gerra gertatu eta hamabi urtera, Irakek beste gatazka bat du AE-Betako balizko erasoaren aurrean. La2ko *La noche temática* saioan egun Irakek bizi duen egoera aztertuko dute gaur (23:20an). Lehenengo dokumentalak (*El fracaso del embargo*) blokeoak biztanle irakiarrengan zein eragin izan duen jorratzen du. Ondoren, Dominique Hennequinen lan batek, irakiar gazteek orainari eta etorkizunari nola aurre egiten dioten aztertzen du. Gaueko hirugarren lana Roberto Lugonesek zuzendutako *El oro del embargo* da. Kurdistanera joko dute lan horretan, Iraken eta Turkiaren arteko petrolio trafikoa bertatik pasatzen baita. Kurduen bizi baldintzen gainean ere ariko dira. Amaitzeko, Nazio Batuetako ikuskatzaileek Iraken eginiko ikerketak jaso ditu Victoria Schultzek azken dokumentalean. 1991 eta 1998 bitartean ikuskatzaileek izan zituzten zailtasunak jasotzen dira lanean.